

Ordiziako Udala

2019IOSB0007

Ordizian, **2019ko maiatzaren 23a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas vascos

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.


BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

-Langileen ordezkari gisa ELAren aldetik, Balluerka jauna azaldu da.

AZTERTUTAKO GAIK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:

- 1.- 2019ko martxoaren 28an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
- 2.- 2019ko apirilaren 1ean ezohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
- 3.- 2019ko apirilaren 29 egindako ezohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 4.- Gaur egun arte egindako Alkatetza dekretuen berri ematea
- 5.- Apirileko kontratazioei dagozkien Kontuhartzailearen ingerei buruzko informazioa.
- 6.- Maiatzeko kontratazioei dagozkien Kontuhartzailearen ingerei buruzko informazioa.
- 7.- Aurrekontu aldaketa, 2018ko aurrekontuan kreditu transferentzia modalitatekoa.
- 8.- Aurrekontu aldaketa, 2019ko aurrekontuari dagokion ekitaldirari kreditu gehikuntza modalitatekoa.
- 9.- 2019 ekitaldiari dagokion aurrekontu aldaketa.
- 10.- 2018 ekitaldiaren likidazioaren berri ematea.



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

- 11.- ORKLI S.COOP unitate funtzionaleko aparkalekuen antolamendurako Aramako Udalarekin egindako lankidetzaren hitzarmena onartzea.
- 12.- 13 "FLOREAGA" HIEn babes publikoko etxebizitzaren sustapenerako Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideen Sailarekin egindako hitzarmena onartzea.
- 13.- Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra hasierako izaeraz onartzea.
- 14.- Enplegatuen publikoen soldata igoera.
- 15.- Herriko Jaiaren proposamena.

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

- Mugen Gainetik GKeri baimena, diruz lagundutako proiektua aldatzeko.

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:


- Herrietako festetan txupina txupinazoa jaurtitzeko proposamena.
- Eguren jaunaren agurra zinegotzi gisa.

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:05ean

AMAIERA: 20:45ean





Ordiziako Udala

2019IOSB0007

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2019ko martxoaren 28ko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2019ko martxoaren martxoaren 28ko ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian hurengo puntuaren berri eman da:

2.- 2019ko apirilaren 1ean ezohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena

2019ko apirilaren 1ean ezohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldekoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.





Ordiziako Udala

2019IOSB0007

Jarraian hurengo puntuaren berri eman da:

3.- 2019ko apirilak 29ko aparteko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2019ko apirilak 29ko aparteko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 7 (EAJ 4, Ordiziako E.H. Bildu 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 1, Ordiziako E.H. Bildu 3, Ordizia Orain 2), ez zirelako bileran egon.

Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.



Jarraian hurrengo puntuaren berri eman da:

4.- Gaur egun arte egindako alkatetza dekretuen berri ematea.

Eguren jaunak azoken eta jai-ospakizunen kudeatzaile bat kontratatzeko LANBIDEn iragarri den eskaintzari buruz galdetu dio alkate jaunari.

Alkate jaunak erantzun dio eskaintza LANBIDE bitartez bideratu dela.


Aldi baterako kontratazioa da, aurtengo abenduaren 31ra arte, eta aurtengo ekitaldiak antolatzeko eta planifikatzeko egin da. Gainera ditugu herriko jaiak eta Euskal Jaiak, eta une hauetan ez dago inor eginkizun horiek betetzeko.

Eguren jaunak esan du gai hori osoko bilkuretarako jarraipena egiten duen batzordean aztertu izan dela behin baino gehiagotan. Batzordean adostu zen lanpostuaren eginkizunak eta eskatu beharreko profila analizatuko zirela, eta ondoren lanpostua sortzeko prozedura eta lanposturako pertsonaren kontratazioa martxan jartzea.

Bere iritziz, hainbeste urtetan eginkizun horretan egon diren udaleko teknikarien arduraldi-denbora kuantifikatu beharko litzateke.

Alkate jaunak esan du une honetan pertsona bat kontratatu beharra zegoela lan horiek egiteko, eta horrenbestez, enplegu-eskaintza bideratu da.

Maiza andreak erantzun dio langileak kontratatzea erabakitzen denean, kontratazio-premia horren, lanpostuak eskatzen duen profilararen eta lanpostuak izango duen ordainsariaren inguruko txostena egon behar duela.



Udaleko osoko bilkuak dagokion informazioa jaso du.



Jarraian hurrengo puntuaren berri eman da:

5.- Apirilko kontratazioei dagozkien Kontuhartzailearen ingerei buruzko informazioa.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (04/2019):

Ordizian 2019ko apirilaren 29an

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Enpresaren izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Bukaera dta	Prorrogak	Kontratuaren prezioa	2018an Gastatua
Gesmunpal	Diru.bilketa exekutiboa	2003/11/03	2007/11/03	---	Aldakorra	33.393,66
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina	1986/04/15	Mugagabe	Urteko luzapena	2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero	44.253,92
Landarri S.L.	Hilerriaren zerbitzua	2005/03/10	10 urte 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data Bukaera data 2016/03/12	Gehienezko kopurua 18.000 euro + BEZ	30.058,12
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-hezkuntza zerbitzu publikoa.	2012/04/27	Gehienez 4 urte. 2016/04/27	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barne	65.529,00
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa	2012/07/24	Gehienez 4 urte 2016/04/27		Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.	105.496,36
INDOK	Munigex-en kudeaketa	Kontraturik gabe.	Urterokoa		2016ko prezioa: 12.196,80 euro BEZ barne	9.107,32
LAIA S.COOP.	Agenda 21	2013/04/01	01/04/2015	Kontraturik gabe.	Kontratuaren prezioa: 17.061 euro BEZ barne	17.913,96
Ainara Ormaetxea Harto	Inmigrazio zerbitzua	2016/01/01			21.773,95 euro BEZ barne	22.089,30

a) Aplikagarria zaizkion arauak:


a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.

"29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa."

1. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.**

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen**



kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurreitazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.


3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasanak arautzen dituen Legearen testu bategina:



“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzaitza Nagusiari, aurreko lerrokan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gaitzerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.


3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

ERREPARO FAKTURAK		APIRILA
HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2019/04	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	90	5419,98
LAIA, S.COOP.	19/10	7828,70
LAIA, S.COOP.	19/13	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	004U/19	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	98	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2019/056	3.045,36
GESMUNPAL, S.A.	2019/02	521,84
GESMUNPAL, S.A.	2019/082	2.858,29
GESMUNPAL, S.A.	2019/03	464,64
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3593654	11.472,55
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3607076	5.378,92
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	21	286,48
LANDARRI, S.L.U.	19000188	80,08
LANDARRI, S.L.U.	19000189	401,07
	GUZTIRA	52.406,73

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketa izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui

2019/0484. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2019ko apirilaren 29an egindako 04/2019 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:


* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ERREPAROA: FAKTURAK.- APIRILA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2019/04	3.701,25
LORRATZ ELKARTEA	90	5.419,98
LAIA, S.COOP.	19/10	7.828,70
LAIA, S.COOP.	19/13	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	004U/19	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	98	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2019/056	3.045,36
GESMUNPAL, S.A.	2019/02	521,84
GESMUNPAL, S.A.	2019/082	2.858,29
GESMUNPAL, S.A.	2019/03	464,64
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3593654	11.472,55
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3607076	5.378,92
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	21	286,48
LANDARRI, S.L.U.	19000188	80,08

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABA9VK.2o8l>



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

LANDARRI, S.L.U.	19000189	401,07
	GUZTIRA	52.406,73

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.
ALKATEAK

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza andreak kontu-hartzaileari galdetu dio zenbatekoa den bere iritziz kontratu guztiak erregularizatzeko epea.

Kontu-hartzaile jaunak erantzun dio kontratuak bere kontrolpean daudela, baina ez dituela kudeatzen.

Alkate jaunak Maiza andreari esan dio zerrendan dauden kontratuetakoa batzuk lizitatzeko moduan daudela ia-ia.

Osoko bilkurak dagokion informazioa jaso du.



Jarraian hurrengo puntuaren berri eman da:

6.- Maiatzeko kontratazioei dagozkien Kontuhartzailearen ingerei buruzko informazioa.

Proposamena

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (05/2019):

Ordizian 2019ko maiatzaren 20an


AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

Enpresaren izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Bukaera dta	Prorrogak	Kontratuaren prezioa	2018an Gastatua
Gesmupal	Diru.bilketa exekutiboa	2003/11/03	2007/11/03	---	Aldakorra	33.393,66
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur etxearen atezaina	1986/04/15	Mugagabe	Urteko luzapena	2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero	44.253,92
Landarri S.L.	Hilerraren zerbitzua	2005/03/10	10 urte 2015/03/01	Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data 2016/03/12	Gehienezko kopurua 18.000 euro + BEZ	30.058,12
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-hezkuntza zerbitzu publikoa.	2012/04/27	Gehienez 4 urte. 2016/04/27	Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.	Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barneo	65.529,00
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	D'Elikatuz zentroaren kudeaketa	2012/07/24	Gehienez 4 urte 2016/04/27		Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.	105.496,36
INDOK	Munigex-en	Kontraturik	Urterokoa		2016ko prezioa:	9.107,32

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABA9VK.2o8l>

9



	kudeaketa	gabe.			12.196,80 euro BEZ barne	
LAIA S.COOP.	Agenda 21	2013/04/01	01/04/2015	Kontraturik gabe.	Kontratuaren prezioa:: 17.061 euro BEZ barne	17.913,96
Ainara Ormaetxea Harto	Inmigrazio zerbitzua	2016/01/01			21.773,95 euro BEZ barne	22.089,30

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

2. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,** kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian,** kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa,** eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

- 1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharr ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.


2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

- a) Eskubideak edo betebeharr ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

- c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatu erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gairerrendan.


Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organoren eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

FAKTURA: ERREPAROA		MAIATZA
HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
LORRATZ ELKARTEA	141	5.460,75
LAIA, S.COOP.	19/17	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	005U/19	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	99	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	100	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2019/129	1.713,75
GESMUNPAL, S.A.	2019/04	346,76



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	31	286,48
LANDARRI, S.L.U.	19000230	320,87
LANDARRI, S.L.U.	19000253	320,87
	GUZTIZKOA	21.211,54

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui

2019/0543. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2019ko maiatzaren 20an egindako 05/2019 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek inpleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.


* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

ERREPAROA: FAKTURAK.-MAIATZA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
LORRATZ ELKARTEA	141	5.460,75
LAIA, S.COOP.	19/17	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	005U/19	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	99	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	100	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2019/129	1.713,75

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABA9VK.2o8l>

12



GESMUNPAL, S.A.	2019/04	346,76
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	31	286,48
LANDARRI, S.L.U.	19000230	320,87
LANDARRI, S.L.U.	19000253	320,87
	GUZTIRA	21.211,54

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.
ALKATEAK,

Udaleko osoko bilkurak dagokion informazioa jaso du.



Jarraian hurrengo puntuaren berri eman da:

7.- Aurrekontu aldaketa, 2018ko aurrekontuan kreditu transferentzia modalitatekoa.


Proposamena

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA
Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 431.01.231.90.0109 2018	Ekarp. SAN JOSE EGOITZA	389.648,00	24.106,86	365.541,14
	GUZTIRA	389.648,00	24.106,86	365.541,14

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 203.01.132.00.0201 2018	Ualtzaigoaren kotxea rentingean	6.000,00	299,68	6.299,68
1 200.01.133.00.0202 2018	Lur eta ond.nat.errent. Trafiko kontrola	8.894,65	1.861,82	10.756,47
1 212.01.133.00.0202 2018	Mak.mant..Tresn. Trafiko kontrola	8.000,00	1.059,23	9.059,23
1 227.99.133.00.0202 2018	Contrato para el control de la velocidad	0,00	1.364,15	1.364,15
1 213.01.153.40.0224 2018	Ibilg.mant. Bide publikoak	1.835,96	569,23	2.405,19
1 227.99.164.00.0232 2018	Kontr. zerbitzuak. Hilerria	24.873,43	4.871,67	29.745,10
1 221.01.165.00.0237 2018	Argindarra. Argiteria	142.910,66	1.835,30	144.745,96
1 221.01.326.20.0115 2018	Argindarra. KONEKTA ZAITEZ	1.084,02	123,37	1.207,39
1 227.99.334.00.0133 2018	KULTURLAB	36.000,00	257,43	36.257,43
1 212.01.337.10.0109 2018	Mak.mant..Tresn. Jubilatuen Egoitza	0,00	459,94	459,94
1 221.02.414.00.0292 2018	Ura	20,52	0,17	20,69
1 222.01.430.00.0261 2018	Komun.telef.. Komertzioari Lagunt.	0,00	719,55	719,55
1 226.99.430.00.0261 2018	Jarduerak. DINAMIZAZIO KOMERTZIALA	1.250,00	1.137,03	2.387,03
1 226.91.431.10.0123 2018	"ARTZAIN EGUNA" FERIA	20.340,00	1.300,48	21.640,48
1 227.01.442.00.0293 2018	Garbiketa. Garraioak	1.786,45	717,90	2.504,35



	TERREST.			
1 222.01.920.00.0322 2018	Komun.telef.. Admin.Orokor.	21.357,00	4.565,65	25.922,65
1 369.01.931.00.0324 2018	Gastu finantzarioak. Admin.finantz..	305,10	92,13	397,23
1 421.01.414.00.0292 2018	Ekarp. GOIMEN ETA MATADERO TOLOSA	14.621,88	588,58	15.210,46
1 623.02.337.10.0109 2018	INBERTSIOAK ZUHAIZTI	9.000,00	67,32	9.067,32
1 626.01.929.00.0300 2018	EQUIPO INFORMATICO	0,00	625,80	625,80
1 933.01.011.00.0301 2018	Kutxek emandako kredit. Amortiz.	513.891,53	1.590,43	515.481,96
GUZTIRA		812.171,20	24.106,86	836.278,06

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

ORDIZIA, 2018(e)ko abenduaren 31(e)an.- Alkatea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Alkate jaunak, proposatzen diren aurrekontu-aldaketak azaldu ditu.

Sukia andreak esan du, legealdian zehar izan duen jarrerarekin koherenteki jokatzuz, aurrekontuak aldatzeko proposamenaren aurka bozkatuko duela.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, emaitza honakoa izan da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EHBildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Aurrekontu aldaketa, 2019ko aurrekontuari dagokion ekitaldirari kreditu gehikuntza modalitatekoa.

Proposamena


Udal honen 2019ko aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarria finantzatzeko duen sarrera bat dator espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen du gastu gehikuntza.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 1.696,02 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Proposatzen den kreditu aldaketa honako hau da:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABA9VK.2o8l>



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 601.01.151.00.0211 2019	UPABIko bide berria	0,00	1.696,02	1.696,02
GUZTIRA		0,00	1.696,02	1.696,02

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 420.01.000.00.0000 2019	Itundutako zergetako partaidetza	1.696,02
FINANTZAKETA GUZTIRA			1.696,02

KODEEN AZALPENA

c) Sarrera handiagoak.
Ordizian, 2019ko maiatzaren 3an.- Alkatea

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jaunak aldaketaren xedea azaldu du.

Eguren jaunak esan du bere taldea abstenitu egingo dela puntu honen eta hurrengoaren bozketan, puntu horiek onartzea ez oztokatzeagatik, baina esan du ez dela onargarria ia ekainean egonda, oraindik aurrekonturik ez edukitzea onartuta.

Alkateak jaunak erantzun dio aldaketa zehatza dela, aurreko legealditik ordaintzeko dagoena ordaintzeko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, emaitza ondorengoa izan da:

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 5 (Ordiziako EHBildu 5)

Alkate jaunak, ondorioz, gehiengoaren aldeko botoarekin proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- 2019 ekitaldiari dagokion aurrekontu aldaketa.

Proposamena

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientearen ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 60.000,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Proposatzen den kreditu aldaketa honako hau da:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
227.04.231.10.0105 2019	Kontr.: Etxez etxeko Lagunt.	162.000,00	60.000,00	222.000,00
GUZTIRA		162.000,00	60.000,00	222.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
	2 420.01.000.00.0000 2019	Itundutako zergetako partaidetza	60.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			60.000€

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du.

Ordizian, 2019ko maiatzaren 15ean

Eztabaida:

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jaunak azaldu duenez, etxeko laguntza-zerbitzuaren lizitazioa eginda, aurrekontuan jasotako orduak benetan ematen ari diren orduak baino gutxiago dira; kopuru horrekin, zerbitzua 2019 osoan eman ahal izatea aurreikusten da.

Sukia andreak esan du aldaketaren kontra bozkatuko duela, ez zerbitzuaren kontra egoteagatik, aurrekontuan jasota egon beharko lukeela irizten diolako baizik.

Esan du, halaber, lau urte hauetan aurrekontuarekin gertatutakoa lotsagarria dela.

Bolinaga jaunak esan du aurrekontua osoko bilkurara ekarri aurretik sukalde lan bat egin behar izaten dela, eta Sukia andreak badakiela lan hori ez dela egin, ez aurten, ez iaiz.

Sukia andreak erantzun dio bere taldeak eta EH Bilduk aurkeztutako eta onartu ziren zuzenketetatik asko tiraderan daudela.

Ezenarro jaunak, Sukia andreak esandakoaren haritik, esan du beraiek Bustuntzari buruz, besteak beste, proposatutako eta onartutako zuzenketa martxan jarri izana prentsa bidez jakin zutela.

Esan du alkatetzaren ardura dela aurrekontu-proiektu bat osoko bilkurara ekartzea.


Bozketa

Bozketa egin eta gero, emaitza ondorengoa izan da:

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (Ordizia Orain 2)

Abstentzioa: 5 (Ordiziako EHBildu)



Alkate jaunak, ondorioz, gehiengoz onartutzat eman du proposamena.



Jarraian hurrengo puntuaren berri eman da.

10.- 2018 ekitaldiaren likidazioaren berri ematea.

2019/0550. DEKRETUA

Ordiziako udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		2.161.298,82
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		2.577.114,56
Aurrekontuko zordunak :	2.562.202,31	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	14.912,25	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		1.763.343,81
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	1.135.056,73	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	628.287,08	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		2.975.069,57
5.- Saldo kobragaitzak:		956.974,03
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		726.900,71
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.291.194,83

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.175.763,98
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-207.944,36
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	791.983,84
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-612.595,86
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.147.207,60


KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	3.867.462,81
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	290.736,76
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	4.158.199,57

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

ALKATEA,



2019/0545. DEKRETUA

Udal honen 2018(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau:

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2018(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		1.328,49
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		87.955,77
Aurrekontuko zordunak :	79.944,33	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	8.011,44	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		0,00
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	0,00	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		89.284,26
5.- Saldo kobragaitzak:		76.913,15
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		12.371,11

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	50.693,24
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	50.693,24

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	1.676.287,39
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.676.287,39

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.


ALKATEA

2019/0547. DEKRETUA

Ordiziako Herri Antzokiaren 2018ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Herri Antzokiaren 2018ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:



Ordiziako Udala

2019IOSB0007

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2018-12-31n:		55.106,38
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		17.742,18
Aurrekontuko zordunak :	17.742,18	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	0,00	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2018-12-31n:		21.768,64
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	18.378,04	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	3.390,60	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		51.079,92
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		1.838,59
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		49.241,33

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		13.152,21
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		6.000,00
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):		19.152,21

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		9.481,52
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		4.115,46
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):		13.596,98

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

ALKATEA,

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:


Idazkari andreak jakinarazi du gaur Alkatetzaren dekretu bat onartu dela 2018. ekitaldiaren likidazioa onartzeko.

Kontu-hartzaile jaunak azaldutakoaren arabera, aurreko ekitaldiko likidazioak barru hartzen ditu udalaren eta horren erakunde autonomoen eta mendeko sozietateen likidazioa; alegia, Herri Antzokiarena, San Jose egoitzarena, Majori Kiroldegia SLrena eta Ordizia Lantzen SArena.

San Jose egoitza erakunde autonomoari dagokionez, gaur egun KABIak kudeatzen badu ere, eta langileak subrogatu badira ere, erakunde hori desegiten ez de bitartean likidazioa onartzen jarraitu beharra dago.

Badagokio, hortaz, erakunde autonomoa desegitea eta ondasun guztiak udalera pasatzea.

Herri Antzokiaren likidazioari dagozkion datuak azaldu ditu, baita udalaren bi sozietateenak ere.



Udaleko osoko bilkurak honi buruzko informazioa jaso du.



Jarraian, hurrengo puntuaren berri eman da:

11.- ORKLI S.COOP unitate funtzionaleko aparkalekuen antolamendurako Aramako Udalarekin egindako lankidetzaren hitzarmena onartzea.

Proposamena

Lankidetzaren hitzarmena onartzea, Ordizian eta Araman ORKLI, S.KOOP.-aren unitate funtzionaleko aparkalekuak antolatzeko.

Orkli, S.Koop. egoitza soziala Ordizian duen enpresa kooperatiboa da. Ordiziako eta Aramako lurretan dagoen ekoizpen-planta bat du eta unitate funtzional eta kudeaketa-unitate bat da, bi hirigintza-eremu eta udalerritan kokaturik badago ere.

Azken hamarkadetan, aparkalekuak ez dira eraikigarritasunarekiko modu proportzionalan banatu dagokien hirigintza-eremuetan eta udalerritan. Horrela, aparkalekuen eta eraikigarritasunaren proportzioa handiagoa izan da Araman Ordizian baino.

Bai Aramako HAPOK, bai Ordizian indarraldian dauden arau subsidiarioek, bai Ordiziako Udala tramitatzen ari den arau subsidiarioen aldaketa puntualak espresuki jasotzen dute aparkalekuak unitate funtzionalaren multzoan ezarri ahal izatea, eta hori hirigintza-esparru eta udalerriri bakoitzaren eraikigarritasunarekiko modu ez proportzionalan izatea.

Hori guztia aztertuta, Ordiziako eta Aramako Udalen arteko lankidetzaren hitzarmenerako proposamena jakinarazten da, Ordizian eta Araman Orkli, S.Koop. izeneko unitate funtzionalan aparkalekuak antolatzeko, eta 2019ko maiatzaren 15ean Osoko Bilkuretarako gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

AKORDIORAKO PROPOSAMENA:

1.- Aramako Udalarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartzea, Ordizian eta Araman Orkli, S.Koop. izeneko unitate funtzionalan aparkalekuak antolatzeko, honi atxikitako testuaren arabera.

2.- Alkate jauna gaitzea hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren agiri publiko eta pribatu guztiak emateko.

Alkate jaunak lankidetzaren hitzarmenaren xedeari buruzko informazioa eman du, besteak beste ORKLI S. COOPeko aparkalekuak antolatzeko da, mugakide diren bi udalerriri badagozkie ere, unitate funtzional bakarra eratzen dute.


Bozketa

Bozketa egin eta gero, emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak, ondorioz, aho batez onartutzat eman du proposamena.



Jarraian hurrengo puntuaren berri eman da:

12.- 13 “FLOREAGA” HIEn babes publikoko etxebizitzak sustapenerako Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraiobideen Sailarekin egindako hitzarmena onartzea.

Proposamena

Ordiziako “13-Floreaga” Hirigintza Interbentzio Eremuan babes publikoko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak 2019ko apirilean egindako lankidetzak hitzarmenaren proposamena kontuan izanik.

Lurzoru eta Hirigintzako ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen du toki erakundeek pertsona publiko nahiz pribatuekin hitzarmenak sinatu ahal izango dituztela hirigintza jardueraren garapen hobeari eta eraginkorragoan laguntzeko, dagozkion lursailen jabe izan edo ez izanda ere.

Udalari dagokio hirigintza hitzarmenak onartzea, Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritako prozeduraren arabera. Lege honek ezartzen du hirigintza hitzarmenak izaera juridiko administratiboa izango dutela eta onartu aurretik 20 eguneko gutxieneko epean jendaurreko erakusketan egongo da GAO-n edukia osorik argitaratuz alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 c) artikulua osoko bilkurari ematen dio plangintza baliabideak aldatzeko xedea duten hirigintza hitzarmenak onartzea. Akordio honek udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua behar du onartzeko.

2019ko maiatzaren 15eko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- 13-Floreaga HIEn babes publikoko etxebizitzak sustatzeko Ordiziako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren artean sinatu beharreko hirigintza hitzarmenaren proposamena onartzea.


2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalean hitzarmenaren testua osorik argitaratzea 20 eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta onartutzat hartzea, beste akordio bat egiteko beharrik izan gabe, baldin eta zehaztutako epean ez bada alegaziorik aurkezten.

